# M O T E L A

Miriku baten etchean
Mirikua
Andere Tantomergo
Ichidro, hunen seme motela.

## I

**Jaun Mirikua.-** Ez dakit zer gerthatzen den ! Jendea ez da batere eritzen eskualde hotan ! Uste dut ofizio tcharrena hartu dudan, mirikuntza hartuz. Hobe nukeien aise kontrabandichgoa hartu banu ! Hiru egun hautan ez dut pratikarik ikusi ere. Ahatik batto plantakoa agertzen bazait, hits eta promes diot ez dutala huts eginen: jornal ederra atherako diot.... ( Trinn ) Hau fortuna ! Bada norbeit athean !...

## 2 (Muthila heldu da),

.- Jaun mirikua, Andere Tantomergo bere semearekin ea errezebitzen ahal ditutzun...

**Jaun Mirikua .-** Baiez, bai.....

## 3

**Jaun Mirikua .-** Ar gaiten serioski (bere soinekoak eta oro antolatzen ditu, eta airerik handienak hartzen, dena pretenzione.....miraila beha eta hola), Bon ! hola ontsa izanen niz !.....

4 (Ama semeak heldu dira. Anderea, emazte azkar chapeldun bat, eskuara paristar bat mintzatzen duela... gaitza.... S emea iduri zozoa, arrunt motela....)

**Amak .-** Agur, Jaun mediku handia ! Ene errespetuak presentatzen dauzkitzut...

**Mirikuak .-** Agur, Andre ! Agur, Jauna !

**Muthikoak .-** A...a...a...gu...gu...

**Amak .-** Othoi, Ichidro, zaude ichilik ! Jaun mirikua: ene seme hau biziki nekatua da, eta hobe dut hitzik ez erraitea.

**Mirikuak .-** Ah? ....Eta...Zer da, ba?

**Amak .-** Horra, Jaun mirikua ! ttipi ttipitik, usaia trichte bat badu, ez baitakigu batere noiz, nun hartua

duen, mintzatzen hasten den pondutik mihia loditzen bezala zaio, trabatzen zaio, eta halako debeku suerte bitchi bat senditzen du mihi, agin, ezpainetan! Eztea hala?

Muthikok- Ba...ba...ba...a...a...a...

Mirikuak - Ba...ikhusten dut zer den: semea motela duzu.

Amak - Motela?... Oh! Jauna, hanichko erraiten duzu, ene semea motela dela! Ez, ez Jauna ez; ene semeak ez du motel dudarik batere. Moteldura gaitz izigarria da; gure familian, ez dugu holako eritasun itsuririk izaiten ahal! Ez Ichidro ez da batere motela; bakharrik izpiritua sobera ernea du, pentsamenduak burrustan heldu zaizko gogorat, eta gero ahotik ezin atheratuz, alabainan, zinak eta minak ditu!

Mirikuak - Bai, eta orduan hitzak noiz tehinka doblatzen eta erredoblatzen ditu?

Muthikoak - Ba... ba...ja...ja...jaun...mi... mi;;..ku...ku..

Amak - Haurra ez zitela hola neka! Zaude ichilik. Nihaurek esplikatuko diot Jaun mirikuari zer den zure eritasuna!

Mirikuak - Orai konprenituchea dut, andre! Zure semeak ez du ez, moteldura itzalik ere. Gutartean erredobladura erraiten diogu eritasunchkila horri.

Amak - Ba, Jauna, eta artetik erran dezazudan, erredobladura horri ohartu girelarik haren aita eta ni, gauza bat jin zauku gogorat: hitz erredoblatu zombaitekin mintzaraziko ginuela eta holache ez zela hanbat ezagunen izanen haren delako desarramendu ttipia!

Mirikuak - Biziki ideia ona izan duzue eta gain- gainetik felizitatzen zaitut!

Amak - Bai, Jauna eta nola gure Ichidro seme maite hunek harritzeko izpiritua baitu berehala ikhasi ditu jarri erraiteko plazan ere irakasi diogu ttotto ; lorearen orde: lili ; minaren orde mimi ; haragiaren orde: tchitchi; bulhararen orde: ttitti ; arroltzearen plazan: kok o ; haurraren orde: nini ; ilhar- basareb orde: baba.

Mirikuak - Oh! zoin ederki pentsatu duzuen: segur niz orotako atcheman ditutzuela hitz doble horiek: gogo ; chocho , lolo , mama , mumu....

Amak - Bibi , ñoñ , kuku .

Semeak - Kaka , pipi ...

Amak - Othoi, haurra, zaude ichilik. Ez zitela neka....
nirñir ; ttinttin; pilpil .

Mirikuak - chacha, papa....

Semeak - pinpin, panpan....

Amak - Ichidro, ez duzu ontsa konprenitzen ! Ez dut nahi hitzik athera dezazum !

Mirikuak - Ontsa, Andre ! Orai ezagutzen dugu muthiko horren gaitza ! Bainan zer nahi zinuen ba nik egitea?

Amak - Jauna, gure muthiko humek bere hogoitabi urtheak bethe ditu, hala iduri ez duelarik...

Mirikuak - Bai, biziki gaste emaiten du !

Amak - Eta pentsatzen dugu haren aita eta nik, behar giniokeela emaztegei bat atchemen, hartu nahi lukeen batto begistatua dugu eta bihar nahi ginituzke alegia deus ez gure bi gazte hoik errekontrarazi Ez dea hala mumu?

Semeak - Ba...ba...ba...a...a...a...

Mirikuak - Segur chantza ederra du, andereno horrek, nor baita ere, zure seme horrekin ezkontzea !

Amak - Ah ! Jauna, Tantomergotarrek badugu fama, ohore eta diru: zer behar da gehiago !

Mirikuak - Deus ez andre, osagarria baizik !

Amak - Ba eta kantu pollit ba eman-araziko diogula bazkal ondoan andere horren biltzeko ! Nahuzu Jaun Mirikua, eman diezazum kantano hori?

Mirikuak - Bai gogotik...

Amak - Ea, Ichidro chuti zaite. Eman dezagun Jaun mirikua emaztegei: ea nola kantatuko duzun?

Semeak ( sekulan baino zozoago, begi handi batzuekin, esku eskuina bihotzean, tente potente: airea: lau gauzak !

Bebebebebe behazadazu enéni-mi maitea !
Susususuan bebebebero bebebero ikatza !
Ni-ni-mi-ni-nik bebebeberdin bibibibi bihotza !
Nanananahi nunununuke zur'eskuku kukua !

Amak - Ez dea kantu pollita?

Mirikuak - Ba, biziki pollita, sentimenduz eta adimenduz bethea.

Amak - Bainan aho-debeku hori khentzen ahal bazinio, miletan hobe ginuke ! Ez duzuia deusik egiten ahal?

Mirikuak - Errazu Andre, baditake zainek egiten dioten... Ea, haurra, hurbil hunat: ea, mihia? Eda beso hori Hola, orai, zaude zure zango eskuinaren gainean ! Errazu hiru aldiz : Keska

Semeak - ke...ke...ske...

Mirikuak - Huna, pikura bat eginen diogu eta behar bada on eginen dio: badakizu Andre, arrainek ez dutela ez moteldurarik ez eta erredobladurarik; izkinaren erraitean kausi ditake errekitu berezi bat, holako gaitzeri ihardokitzeko partikularra dena Ene kusiaren ihizi zakurrak izigarri sainga makurra baitzuen, errekitu horrekin chertatu dugu eta gaicho alimalea arrunt sendatu !

Semeak - A...ma A...m. e...ez dut nahi

Amak - Haurra ! ez zitala hola khecha ! Ama hor duzu, zure aldean ! Nehork ez dautzu minik eginen: zure onetan ari gira, Ichidro, zure onetan !

Mirikuak - Besoa ager-osu ondoraino (lauzpabortz barneko atheratzen diozka Amak, haurra daldaratzen delarik... Mirikuak anartean harrigarriko tresnak atheratzen ditu... Azkenean Amak atchikitzen du muthikoa eta mirikuak pompa batekin, alegia chertatzen du : oihu bat )

Muthikoak - Uste nuen min ghehiago eginen zautala !

Amak - Jesus ! sendatua zira !

Muthikoak - Ez dakit sendatua nizanez, bainan halako hotz arin on bat sarthu zait zainetan eta iduritu zait on egiten zautala !

Ama (belhauniko) - Jaun mirikua, eskerrak dauzkitzut, salbatu nuzu !

Ama - Ene jaun Tantolergo aitorensemearen partez, esker mila.

Muthikoak - Ene aita Tantomugo aitorensemearen partez, esker mila.

Ama - Ene semearen, izenean mileskher.

Semeak - Ene Amaren, izenean mileskher.

Mirikua - Ahalgetua niz hoimbertze esker onez ! Chuti zaitezte hortik. Eta zuk, Andre, kasu huni: ene pikurak zainetan egin dio bere ondorioa; bainan zainak gauza minberak dira azalda errechak; sekulan jauz balazkio, uste gabeko izialdura batek harturik, edo hotz bat sarthurik, edo berri handi zerbaitek harriturik, berriz has litake lehenagoko eritasuna.

Amak - Jaun mirikua, kasu handia eginen dugu: berri onak eta tcharrak zetabetuko ditugu; ez dugu oihu bat bertzea baino gorago eginen; erranen diogu sehiari ez ditzan bacherak hauts Ichidroren aintzinean; emaztegiearen letrak ere irakurriko ditugu, ez dezoten, zer gertha ere, bihotzari pentzuz eman; gatu bat ekharriko dugu selaurean, gauaz garratoinik ez entzuteko...oh! Bai, jauna, hitz dautzut izialdura eta harridura gisiak urrunduko dizkagula.

Mirikuak - Ederki, andre! Zuhaurek ere, kasu; adichkidea!

Semeak - O bai, jauna, ene amari obedituko diot ponduz pondu.

Amak - Orai, jaun mirikua, nahi nuke jakin zombat den zure pena!

Mirikuak - Ez du presarik: nota igorriko dautzut etcherat...

Amak - Ez, jaun mirikua, berehala nahi ditut gauzak antolatu.. Beraz zombat zor zitugu?

Mirikuak - Hamabortz mila libera.

Ama-semek - Zombat?

Mirikuak - Hamabortz mila!

Semeak - A...a...ma...be...be...be...rriz...mo...mo...mo... tel du ...dua niz.

"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+"+